



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2008ko martxoaren 31, astelehena.

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASIERA:** 19:00

**BUKAERA:** 20:10

## **BERTARATUAK:**

### **Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

### **Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

### **Idazkari-kontu hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## **AZTERGAI ZERRENDAA**

- 1.- Izendatzea, egoki bada, Kontseilari Orokor 1 eta bere ordezkoa Orioko Udaleko ordezkari izateko Kutxako Batzar Nagusian.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Euskararen Plan Estrategikoa —Oriko 2008-2011—.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zerbitzuak Orioko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren Eraberritutako



- Testuari jarritako baldintzak betetzea eta egin dituen oharrak eta ikusitako akatsak zuzentzea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, AIU2 —Sistema General Puerto Deportivo de Orio— eremuan kokatuta dauden hiru eraikinen egiturak eta udal jabegoko partzela bat Eusko Jaurlaritzari saltzea eta alkateari ahalmen zabala ematea, salerosketako eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.
  - 5.- Baimentzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideen lagapena hirugarren batzuei.
  - 6.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak OKK Gazte Asanbladaren proposamenez aurkeztutako mozioa, 2008ko martxoaren 4an egindako udalbatzarraren ezohiko bilkuran gertatutakoari buruzkoa.
  - 7.- Eskariak eta galderak.

\*\*\*

## **1.- IZENDATZEA, EGOKI BADA, KONTSEILARI OROKOR 1 ETA BERE ORDEZKOA ORIOKO UDALEKO ORDEZKARI IZATEKO KUTXAKO BATZAR NAGUSIAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kutxako Hauteskunde Batzordeak idatzi bat bidali dio Udalari eta bertan honako hau esaten du, besteak beste: egindako banaketa berriaren arabera, Orioko Udalari kontseilari orokor bat eta haren ordezkoa izendatzea dagokio, Hauteskunde Arautegiaren 19.2-b) artikulua agintzen duen bezala; izendapenak eragina izango du 2008ko apirileko Batzar Nagusi Eratzailea egiten denetik aurrera eta, beraz, Hauteskunde Batzordeak apirilaren 8ko data jarri du, epemuga gisa, udalbatzarrek Kutxari jakinaraz diezaioten zein diren Batzar horretarako izendatu dituzten kontseilari orokorrak.

Izendapena Udalaren jakinarazpen ofizial baten bitartez kreditatu beharko da, honako agiriez lagunduta: udalbatzarraren erabakiaren ziurtapena; izendatutakoak eta ordezkokoak sinatutako agiria, kargua onartzen dutela adieraziz; izendatutakoak eta ordezkokoak sinatutako aitortpena, Kutxako estatutuen 18. artikulua adierazitako betebeharrak betetzen dituztela adierazten duena eta 13. eta 19. artikuluek ezarritako bateraezintasun edo mugapenik ez dutela adierazten duena.

Idatzi horretan gogorarazten da, azkenik, 44/2002 Finantza Legearekin eta Eusko Legebiltzarraren 3/2003 Legearekin bat etorritz, Kutxako estatutuen 20.4 artikulua ezeztazain izaera ematen diola kontseilari karguari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2008ko martxoaren 26an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU**,



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura. 2008/03/31

**BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

**1.- JON REDONDO LERTXUNDI** alkatea **IZENDATZEA** kontseilari orokor titular Kutzako Batzar Nagusirako, Orioko Udalaren ordezkari.

**2.- EUGENIO COTADO ITURAIN** zinegotzia **IZENDATZEA** kontseilari orokor ordezkari Kutzako Batzar Nagusirako, Orioko Udalaren ordezkari.

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela bi arrazoiengatik: batetik, azken aldirian PNV eta PSE-EE-PSOE alderdiek joko politikoan dabiltzalako Kutzaren hauteskundeak direla eta; eta, bestetik, egin diren izendapenak ez datozelako bat Udalean dagoen indar korrelazioarekin.

## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA —ORIO 2008-2011—.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du plan estrategiko hori bihar bertan izango dela oriora.com udal web orrian zintzilikatuta, edozeinen eskura. Planak bi helburu nagusi ditu:

1.- Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea.

2.- Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Euskara, Hezkuntza eta Merkataritza batzorde Informatzaileak 2008ko martxoaren 11n egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoa: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** Euskararen Plan Estrategikoa —ORIO 2008-2011—.



Emandako botoa azaltzeko, Jesus Rodriguez zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: kontrako botoa eman duela, plan estrategiko horrek ez duelako betetzen Gernikako Estatutuaren 6. artikulua, euskara hutsez entregatu zaiolako. Adierazten du, gainera, plan hori euskaldunei zuzendua dela eta, plana prestatzeko, ez direla kontuan hartu gaztelania hiztunak. Azkenik, dio bera ez dagoela euskararen kontra, baizik eta plan estrategiko jakin honen kontra.

Iñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du harritu egin dela Jesus Rodriguezek emandako kontrako botoarekin, zeren eta udal euskara teknikariak adierazi baitzion abstentzio botoa emango zuela. Hala ere, Iturain zinegotziak gonbitea egiten dio Rodriguez zinegotziari euskara pixka bat ikas dezan.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LURRALDE ANTOLAKETA ZERBITZUAK ORIOKO ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ERABERRITUTAKO TESTUARI JARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA ETA EGIN DITUEN OHARRAK ETA IKUSITAKO AKATSAK ZUZENTZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak, Herri Antolaketa, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaile bateratuak 2008ko martxoaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zerbitzuak Orioko Alde Zaharra birgaitzeko plan bereziaren eraberritutako testuari jarritako baldintzak betetzea eta egin dituen oharrak eta ikusitako akatsak zuzentzea.

### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AIU2 —SISTEMA GENERAL PUERTO DEPORTIVO DE ORIO— EREMIAN KOKATUTA DAUDEN HIRU ERAIKINEN EGITURAK ETA UDAL JABEGOKO PARTZELA BAT EUSKO JAURLARITZARI SALTZEA ETA ALKATEARI AHALMEN ZABALA EMATEA, SALEROSKETAKO ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak, Herri Antolaketa, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaile bateratuak 2008ko martxoaren 27an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura. 2008/03/31

B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

**1.- ONARTZEA** Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari saltzea 6.253,20 m<sup>2</sup>ko udal jabetzako lursaila, AIU2 Eskuhartze Urbanistikoko Arean —Orioko kirol portuko sistema orokorra— dagoena; salmentaren prezioa honako hau da: 156.330 euro (25 euro metro karratuko).

**2.- ONARTZEA** Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari saltzea hiru eraikinen egiturak, AIU2 Eskuhartze Urbanistikoko Arean —Orioko kirol portuko sistema orokorra— daudenak; salmentaren prezioa (eraikitzearen prezio bera) honako hau da: 804.568,69 euro.

**3.- AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari salerosketako eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiagatik: hiru eraikinen hormigoizko egituren eraikuntza kostua gehiegizkoa iruditzen zaielako, nahiz eta ulertzen duten udalbatzarrak gaurko bilkuran hartu duen erabakia.

### **5.- BAIMENTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINEAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ESKUBIDEEN LAGAPENA HIRUGARREN BATZUEI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaur egun Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkatzeko duen Mandoeulie SL adjudikaziodunak dauzka Orioko hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, eta hainbat tramite egin dira eskubide horiek Xabier Urretabizkaia Lizarribarri lagatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2008ko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**1.- BAIMENA EMATEA** gaur egun Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkatzeko duen Mandoeulie, SL adjudikaziodunak dauzkan Orioko hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak Xabier Urretabizkaia Lizarribarri lagatzeko, Udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an onartutako Baldintza Juridikoen eta Baldintza Ekonomiko-



Administratiboen Pleguetan ezarritakoa guztiz betez; era horretan, zerbitzu horiek ustiatzeko eskubideak 2018ko maiatzaren 30ean bukatuko dira.

**2.- JAKINARAZTEA** erabaki hau interesatu guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsioak azalduz.

**6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK OKK GAZTE ASANBLADAREN PROPOSAMENEZ AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2008KO MARTXOAREN 4AN EGINDAKO UDALBATZARRAREN EZOHICO BILKURAN GERTATUTAKOARI BURUZKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*UDAL BATZARRARI:*

*Agur t`erdi:*

*Nahiz eta bertsio ezberdinak izan, denok dakigu martxoaren 4an zer gertatu zen ez ohiko bilkuraren ondoren. OKK gazte asanbladako kideok adierazi nahi dugu, ez garela harro sentitzen gure ekintza batean norbait mindua izanaz, baina argi utzi nahi dugu, bakezaleak garen moduan ez ditugula erasoak gogoko eta bertan gertaturikoa ez zela inondik inora eraso izan. Bilkura amaitu ondoren oso haserre irten ginen pleno aretotik, eta gure eskubideak aldarrikatzeko moduan formak galdu genituen.*

*Martxoaren 27an udaleko ordezkari ezberdinekin eta udaltzaingoarekin eginiko bileran jakinarazi genuen moduan, adierazpen askatasunaren funtsezko eskubidea defendatzeko egin genuen aurrera. Nahiz eta legeak alkateari aretora pankartarik ez sartzeko ahalmena eman, ez zaigu bidezkoa iruditzen adierazpen askatasunaren eskubidea pertsona baten desiren edo interesen baitan izatea, eta are gutxiago alkateak udal batzarraren iritzirik jakin gabe erabaki hau hartzea eta herriari ezagutarazi aurretik aplikatzea.*

*Gertatu ziren istiluengatik ordea, ostegunetik hona, OKK-ko kide garen herriko zazpi gazte deklaratzera zitatuak izan gara Donostiako auzitegi probintzialeko epaitegian "ATENTADO AGENTES AUTORIDAD" salaketapean. Honek izan ditzakeen ondorio larriak ikusita, gertaturikoa eta salaketaren funtsa erabat desproporzionatua eta oker bideratutakoa iruditzen zaigu.*

*Guzti honengatik, hau da udal batzar honi eskatzen dioguna:*

*1.- Alkateak bere jarrera errektifikatzea, adierazpen askatasuna denon eskubide modura onartuz eta ez bere desiren arabera debekatu.*



*2.- Dagoeneko murgilduta gauden auzi judizial honetan, Udalaren laguntza juridiko, ekonomiko eta instituzionala.*

*Bukatzeko, ostegunean Udalak elkarte inplikatuekin egin zuen bilerak jarraipen bat izan dezan espero dugu, gauzak hitz eginez konpontzen baitira, eta ez salaketa judizialen bitartez. Mila esker.*

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta Udalbatzarrari eskatzen dio mozioak egiten dituen bi eskaerak aparte bozkatzea.

Beraz, bozketan jartzen da OKK Gazte Asanbladak egindako lehendabiziko eskaera, alkateak bere jarrera zuzentzeari buruzkoa. Bozketaren emaitza honako hau da: aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta García (EB-B/Aralar), guztira **BOST BAIEZKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Cotado (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**.

Bozketan berdinketa gertatuenez (5 aldeko boto eta 5 kontrako), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-d) *in fine* artikulua ezarritakoa betez, bigarren bozketa egiten da eta berriz berdinketa gertatzen da. Beraz, alkateak kalitateko botoa erabiltzen ez duenez, gaia **MAHAI GAINEAN GERATZEN DA, ONARTU GABE**.

Ondoren, bozketan jartzen da OKK Gazte Asanbladak egindako bigarren eskaera, Udalaren laguntza juridiko, ekonomiko eta instituzionala eskatzeari buruzkoa. Bozketaren emaitza honako hau da: aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta García (EB-B/Aralar), guztira **BOST BAIEZKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Cotado (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**.

Bozketan berdinketa gertatuenez (5 aldeko boto eta 5 kontrako), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-d) *in fine* artikulua ezarritakoa betez, bigarren bozketa egiten da eta berriz berdinketa gertatzen da. Beraz, alkateak kalitateko botoa erabiltzen ez duenez, gai hau ere **MAHAI GAINEAN GERATZEN DA, ONARTU GABE**.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: OKK Gazte Asanbladak aurkeztutako idatzian jarrera aldaketa bat sumatzen da, autokritika egiten baitute; baina Udaleko beste talde politiko batzuek ez dute mozioaren edukia onartu, ez dute jarrera aldatu eta, egia esateko, ez du ulertzen jokabide hori.





Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: Ertzaintzari deitzearen helburua Muntoko plan partziala *desbirtuatzea* dela.

Azkenik, Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: gai honekin gertatutakoa Udalaren porrota dela eta berak ontzat hartzen duela OKK Gazte Asanbladak egindako autokritika.

## **7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du mozio bat aurkeztu zuela bere garaian, Muntoko sektoreko antolamendu urbanistikoari buruzko herri kontsulta egitea eskatuz, eta oraindik ez duela erantzunik jaso.

Alkateak erantzuten dio ez duela mozio horren berririk; baina jakingo duela eta aztertuko duela gaia.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**